



## Trial erakustaldia gehitu diote Ibilgailu Klasikoen Erakusketari

**TOLOSA** ▶ Asteburu honetan izango da motor produktuen azoka Tolosako Ferialekuan

**KARTS** ▶ Lehiaketako karts erakustaldia izango da etzi, Ander Vilariño tartean dela

**TRIALA** ▶ Trial erakustaldia da berrikuntza; hilaren 18an izango da zezen-plazan ▶ 2

### ASTEASU ▶

#### Arauk berrikusteko lehen pausoak

Interesatuak bere iradokizunak aurkez ditzakete 5a arte ▶ 4

### ALEGIA ▶

#### Dantzarien I. Topaketa izango da etzi herrian

200 hurrek hartuko dute parte dantza emanaldian ▶ 5

### LEITZALDEA ▶

#### Bai Euskarari ziuhtagirien jarraipena

Kontseiluko teknikoa 56 eragilerekin egonen da laster ▶ 7



### ‘Naparra’ gogoan bere desagerpenaren 25. urtemugan

**LIZARTZA** ▶ Jose Miguel Etxeberria Alvarez *Naparra* Ipar Euskal Herrian «Batallon Vasco-Español-ek bahitu zuenetik» 25 urte beteko dira larunbatean eta omenaldia egingo diote errefuxiatu iruñarrari lagunek eta senitartekoen igandean Lizartzan, bere familiak duen etxean. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak prentsaurrekoa deitu zuen atzo Donostian —argazkian— omenaldiaren eta bere desagerketaren berri emateko. Komando Autonomoetako kidearen desagerpena «gerra zikinaren ekintza»

izan zela esan zuen Jon Enparantzak eta Espainiako Estatuaren erantzukizuna salatu zuen. Eneko Etxeberriak «9.131 egun igaro dira eta nahihikoa da» esan zuen. Senitartekoen atxiloketa ilegal eta hilketagatik kereila jarri zuten 1999an, baina Auzitegi Nazionalak artxibatu egin zuen 2004ean, nahiz eta familiak jakin «estatu terrorismoaren ekintza» dela. *Naparraren* omenaldia igande eguerdian izango da Lizartzako Igarola-Bekoa baserrian.

IÑIGO TERRADILLOS ▶ 7

GIZARTEA ▶

# Trial erakustaldia gehitu diote berrikuntza gisa erakusketari

Asteburuan egingo dute Ibilgailu Klasikoen XI. Nazioarteko Erakusketa; besteak beste, motor produktuen azoka eta lehiaketako karts-en erakustaldia izango dira



Ibilgailu Klasikoen XI. Nazioarteko erakusketa larunbatean eta igandean izango da, Ferialekuan; ekimen ugari antolatu dituzte. U. URREAGA

## IRATXE ETXEBESTE

Ibilgailu Klasikoen XI. Nazioarteko Erakusketa izango da asteburuan, hilaren 11n eta 12an, Ferialekuan. Urtero bezala, Ibilgailu Klasikoen Nazioarteko Elkarteak antolatu du ekimena, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren babesarekin. Aurtengo ediziorako lau esparrutan banatu dute antolatzaileek erakusketa: moto klasikoaren erakustaldia eta II. Oria Zirkuitua, motor produktuen azoka, auto eta moto klasikoaren eta antigoaleko erakusketa eta trial erakusketa izango dira, hain zuzen ere. Hona hemen, ekimen bakoitzaren nondik norakoak, banan-banan zehaztuta:

### MOTO ERAKUSTALDIA

**Karts-ak.** Zirkuituko erakustaldiari ekin aurretik, antolatzaileek adierazi dute karts-en erakusketa egingo dutela Ander Vilariforen eta bere taldearen eskutik larunbat goizean. **Zirkuitua.** Herri barruan egingo dute larunbatean II. Oria Zirkuitua, 18:00etatik 20:00etara. Lasterketako pilotuek hartuko dute parte, eta moto klasikoak gidatuko dituzte. Bi denborako motoak —gasolinarekin eta gasolioarekin ibiltzen direnak— eta lau denborakoak

—gasolinarekin— izango dira zirkuitu horretan, etxe hauetakoak: Ossa, Derbi, Bultaco, Lube, Montesa, Ducati, Aspe, Gilera, BMW eta Sanglas. Guztiak ere 40. eta 70. hamarkada artean egindako motorrak dira. **Erakustaldia.** Ordu erdi lehenago, 17:30ak aldera, Ander Vilarifño pilotuak eta bere ekipoa lehiaketetan erabiltzen diren karts-ekin erakustaldia egingo dute. Pilotuak hauexek izango dira: Jon Altuna alkizarra, Miguel Otegi tolosarra, Mikel Aldanondo eta Aritz Aretxaga beasaindarrak, Aritz Garcia leioarra eta Isidro Otxoa irurtzundarra.

### MOTOR PRODUKTUAK

**100 saltoki.** «Ibilgailu Klasikoen Elkarteak izugarriko lana egin du Tolosako erakusketa honetara motor produktuen merkatu benetan zabala ekartzeko», adierazi dute antolatzaileek. 100 saltoki baino gehiago izango dira, Ferialekuan eta aparkalekuan zehar banatuta. Besteak beste, honakoak izango dira salgai eta ikusgai: era guztietako ordezkio piezak, klasikoak eta antigoalekoak, katalogoak, liburuak, papergauzak, miniaturretak eta jostailuak.

**Helburua.** «Azoka handitze horren helburua honakoa da: an-

tigoaleko motorraren kultura bultzatzea». Izan ere, azoka horri esker pieza klasikoak eta antigoalekoak berritu daitezke, eta herri honetako ondare historiko bihurtu. Saltzaile asko izango da Tolosan, eta horren arrazoiak da eskaerak gora egin dutela; alegia, antigoaleko ibilgailuen piezen eta ordezkio piezen eskaerak gora egin du, Euskal Herrian gero eta gehiago baitira, Ibilgailu Klasikoen Nazioarteko Elkarteak kideen hitzetan, autoak eta motorrak berritzen aritzen direnak. Modu horretara, garai bateko pieza asko berreskuratu ahal izan dira.

### AUTO ETA MOTO KLASIKOAK

#### ETA ANTIGOALEKOAK

**Erakusketa.** Ibilgailuen erakusketa dela eta, ondorengo autoak aurkitu ahal izango dituzte bisitariek erakusketan, besteak beste: Cadillac La Salle bat, 1940koa; Rolls Royce bat, Bugatti bat eta Paris-Dakarren parte hartzen duten ibilgailu batzuk, tunning sailekoak. Beste batzuk ere izango dira tartean: Ford Thunderbird Cabriolet bat, 1961koa; «Elvis Presley-ri asko gustatzen zitzaion marka»; Chrysler Royal bat, 1936koa, Chevrolet Doble Phaeton bat, 1928koa, eta Nash Doble Phaeton bat,

1925ekoa, batzu-batzuk aipatzearen. Bestalde, eta motorrei dagokienez, II. Oria Zirkuituan parte hartuko duten motoez gain, 20ko eta 70eko hamarkaden artean egindakoak ere izango dira erakusketan.

### TRIAL ERAKUSTALDIA

**Berrikuntza.** «Aurtengo berrikuntzetako bat I. Trial Erakustaldia izango da». Halaxe adierazi dute antolatzaileek. Tolosako zezen-plazan egingo dute, Ibilgailu Klasikoen Nazioarteko Erakusketa amaitu eta hurrengo larunbatean; hilaren 18an, hain zuzen ere, sanjoanetako lehen festa ekitaldi modura. «Lau txapeldun izango dira bertan: Iker Lezeta (lau aldiz munduko txapeldun izandakoa), Alberto Gomez (hirutan Espainiako txapeldun izana), Miguel Angel Jimenez (Espainiako txapeldun, kadete mailan) eta Carlos Ramos (Aragoi-ko txapeldun, junior mailan). **Zozketa.** Erakustaldia amaitzen denean, ikusleen artean Scooter NS 125 DLX bat zozketatuko dute sarrera-txarteletako zerbakiarekin. Dagoeneko salgai dira trialerako sarrerak Cheyenne moto dendan eta Oria hoteletako kafetegian. Erakustaldiaren egunean ere izango dira sarrerak salgai, zezen-plazan bertan.

## «Goraka doa erakusketa»

Ibilgailu Klasikoen Nazioarteko Erakusketa «goraka» doa Tolosan. Halaxe uste dute, behintzat, Ibilgailu Klasikoen Nazioarteko Elkarteak arduradunek. Haiek dira urtetik urtera erakusketa hori antolatzen dutenak, eta edizioek aurrera egin ahala ekimenak gehitzen ari zaizkie ohiko eta oinarriko erakusketari.

Horren adibide da aurtengoa egin duten eskaintza. Moto klasikoaren erakustaldia eta II. Oria Zirkuitua batetik, eta Ander Vilariforen eskutik Ferialekuan izango den lehiaketarako karts-en erakustaldia, bestetik, larunbatean izango dira. Leku berean, etenik gabeko erakusketa izango da, bestalde, motor eta auto klasikoekin. Baina hori bi egunetan: larunbatean eta igandean.

«Aipatu beharreko beste ekimen bat da motor produktuen azokaren gorakada», diote antolatzaileek, batak bat, ehundik gora saltzaile izango direlako: «Merkatu hori handitzea egin den ahaleginaren helburua da, alde batetik, motor klasikoaren kultura bultzatzea, eta, bestetik, antigoaleko ibilgailuen berritzailea bultzatzea; XIX. mendearen bukaerako eta XX. mendearen hasierako ondare historiko baitira ibilgailu horiek».

Orain arte egindako lanak fruituak eman baditu ere, aurrerantzean ildo berari helduko diotela iragarri dute antolatzaileek, eta, horregatik, ediziotik ediziora aldatetako izan litezkeela azaldu dute. Berrikuntza gisa, hilaren 18an trial erakustaldia antolatu dute aurtengorako. San Joan jaietako egitarauaren baitan sartu duten ekimena, alegia. ◀

## MOTOR PRODUKTUAK

Era guztietako ordezkio piezak, paperak, katalogoak, liburuak, miniaturretak, jostailuak... izango dira azokan

## TRIAL ERAKUSTALDIA

Antolatzaileek Scooter NS 125 DLX motorra zozketatuko dute ikusleen artean; sarrerak salgai dira

MUSIKA ▶

# Asteburukoak, eta agur denboraldiari

Selam, Inoren ero ni, Peiremans+ eta Foralettes taldeak, Bonberenean

LEIRE MONTES

Joan den irailetik aritu dira Bonbereneako kontzertuak eta denetarik ekitaldiak antolatzen, buru-belarri. Bada, atsedean hartzeko garaia iritsi zaie. Eta denboraldia «behar bezala agurtzeko», kontzertu apartak antolatu dituzte astebururako. Bihar eta etzi, bina talde ariko dira etxean. Oporraldien ondoren, irailean itzuliko da berriro musika festa Bonberenean.

Bihar, 22:30etik aurrera, Selam eta Inoren ero ni taldeak ikusi eta entzun ahal izango dira etxean. Frantziako Selam taldeak bere lanen berri eman-

go du. Inoren ero ni laukotea, bestalde, duela dezentetik aurreratu zuen bere lana, eta doinu horiek ekarriko ditu Tolosara. Maila handiko kontzertuak biak, ez bairik gabe.

Etzi, ordu berean, Peiremans+ eta Foralettes igoko dira Bonbereneako taula gainera. Peiremans+ talde berriak bere lehen diska kaleratu du duela gutxi, Bonberenea Ekin-tzak zigiluarekin; kanta horietaz gozatzeko aukera izango da, beraz, etxean. Ima Ubeda tolosarrak (Bide Ertzean, Deabruak teiltatuetan), Gorka Urbizuk (Berri Txarrak) eta Txiki-k (Kashbad) Marino Goñirekin batera ariko dira zuzenekoan.



Inoren ero ni laukotea; bihar joko dute. SOPHIE HINDENNAGH / METAK



Peiremans+ hirukotea. HITZA



Foralettes taldekoek etzi eskainiko dute emanaldia. HITZA

Hilaren 17an Arrasateko gazte-txean joko dute, Brigada Criminal-ekin, eta 18an Durangoko Plateruenan, Zea Mays taldearekin. Foralettes taldeak itxiko du, etzi, Bonbereneako musika denboraldia. Laster arte.

## Sanjoanak, musikaz blai

Asteburuko kontzertuekin esango diote agur Bonbereneako denboraldi honetako emanaldiei. Oporren ondoren, irailean, itzuliko dira berriro etxera kontzertu arrakastatsuak. Oporrak hartu baino lehen, baina, herria musikaz bustitzen jarraitu nahi dute, eta horregatik San Joan jaietarako ere antolatu dute ekitaldirik.

Hilaren 23an, osteguna, Lobo Electrico eta Humus taldeek eta Jone bakarleri anoetarrak kontzertua eskainiko dute Plaza Berrian, 23:30etik aurrera. Ostiralean, hilaren 24a, Sex Museum eta Brigada Criminal taldeak ariko dira, ordu eta leku berean. Bestetik, Koadrila Egunean, hilaren 25a, Bonberenea txarangak herriko txokak alaituko ditu bere emanaldiek.

«Jai alaiak izan eta hurrena arte! Bonberenea bizirik!», opatu diete herritarrei etxekoek. ◀

AHT ▶

### Bilerara deitu du Tolosaldea AHT Gelditu! Elkarlanak

Tolosaldea AHT Gelditu! Elkarlanak bilerara deitu du astelehenean, hilaren 13a, 20:00etan, Kultur Etxean. Informazioa banatu eta helburuak eta lehentasunak finkatu dituzte bertan. Bestalde, igandean ordu eta erdiko ibilalditxo antolatu dute: Landetxa-Araso-Gaintxurizketa. Irteera Landetxako (Irun) auzo elkartetik izango da, 10:30ean.

SANJOANAK ▶

### Koadrila Eguneko bazkarirako txartelak salgai

Hilaren 25ean, larunbata, izango da aurten sanjoanetako Koadrila Eguna, eta txartelak salgai dira. Aste honetako eta hurrengo asteko ostiraletan eta larunbatetan (10-11 eta 16-17) eros daitezke, Orbela tabernan, 18 eurotan: ostiraletan 19:00etatik 21:00etara egongo dira salgai, eta larunbatetan 11:30etik 13:30era. Informazio gehiago 943 65 23 84an (Eli).

HEZKUNTZA ▶

### Begirale ikastaroa Hirukiden

Datorren ikasturtean begirale ikastaroa egiteko izenematea zabaldu dute Iturralde Eskolan (Hirukide ikastetxea). Hilaren 23a arte, osteguna, eman daiteke izena. 943 67 03 11 telefono zenbakira deitu behar da horretarako, eta Gartxot Agirre arduradunataz galdetu. Informazio gehiago jakin edo zailtzarik argitu nahi duenak ere dei dezake horra.

EUSKARA ▶

### Irazkiren eta Udalaren arteko hitzarmena

Irazki elkarte kulturantzak eta Udalak hitzarmena sinatu dute. «Etorkinen euskalduntzean euskararen erabileraren normalizazio lanak elkarlanean bideratzea» da xedea. Euskarazko eskolak eta euskarazko aisialdia eskaini ahal izateko, 5.000 euroko laguntza emango dio Udalak Irazkiri. Gainera, lan taldea osatuko dute hitzartakoari jarraipena egiteko.

MENDIA ▶

### Errioxara irteera antolatu du Alpino Uzturrek

Alpino Uzturre mendi elkar-teak irteera antolatu du Errioxara (Espainia) hilaren 19an, igandea. Valvanera-Valdezcaray sei orduko ibilaldia osatuko dute mendizaleek, eta San Lorenzo (2.217 metro) igoko dute. Izena eman daiteke jada Elkartean (Gudari 5, behea. 943 65 27 89). Bazkideek 10 euro ordaindu behar dituzte, eta gainontzekoek 12 euro.

XAKE ▶

L. MONTES

Tolosako Xake Elkartek bere egoitza berria (Berdura plaza) inauguratu zuen joan den larunbatean. Hori ospatzeko, partida azkarreko Tolosako Xake Txapelketa antolatu zuten elkartekoek. Adierazi dutenez, «egoitza berria erabat bete zen, Tolosatik nahiz inguruko herrietatik etorritako jokalariei eta ikusleekin».

Josu Mujika ibartarrak irabazi zuen txapelketa: «Lehen

## Josu Mujika ibartarrak irabazi du partida azkarreko Xake Txapelketa

Txapelketa honekin inauguratu zuen Tolosako Xake Elkartek bere egoitza berria, Berdura plazan; jokalariek eta ikusleek erruz bete zuten

txandetan aurrea jarri zen, eta horrelaxe iraun zuen bukatzeraino». Atzetik lehia bizia egon zen, eta lau jokalariek ber-

dindu zuten bigarren postuan: Xabier Mujika, Javier Baroja, Sabino Etxeberria eta Iñaki Etxeberria, hain zuzen ere.

«Erabilitako desberdinketaren eraginez, baina, podioa lehendabiziko bi xakelariek biosatu zuten».

SAILKAPENA ▶

Partida azkarreko Tolosako Xake txapelketa.

1. Josu Mujika
2. Xabier Mujika
3. Javier Baroja

Sari banaketan Jokin Bildarraz Tolosako alkatea aritu zen. Tolosako Xake Elkartekoek «esker berezia luzatu» nahi diote inauguraziora joan izanagatik.

ASTEASU ▶ ARAU SUBSIDIARIOAK

# Arau subsidiarioen berrikuspenaren lehen pausoak martxan

Udalak aurrerakina onartu du eta uztailearen 5a arte dago ikusgai interesatuek bere iradokizunak aurkezteko

ERREDAKZIOA

Asteasuko Udalak arau subsidiarioen berrikuspenaren aurrerakina onartu du. Horrekin batera ingurumen eraginaren ikerketa ere burutu da. Bi dokumentuak ikusgai daude udaletxeko idazkaritzan uztailearen 5a arte, interesatuek bere iradokizunak aurkezteko.

Ondoren zehazten dira arau subsidiarioen berrikuspenaren planteatzen diren jardueraren proposamen nagusienak:

**Herrigunea oinezkoentzat jar-tzea.** Kale Nagusia, bi plazak eta Obaba kalea Ibarrazpi pasealekuraino oinezkoentzat ipintzea planteatzen dute, herriaren erdiguneko espazioak herritarrei itzultzeko.

**Bide perimetrala.** Asteasuko herrigunea oinezkoentzat ipintzearekin batera herrigunearen inguruan bide perimetral bat konfiguratzeko planteatzen da pixkanaka, herriguneko espazioak pasadizoko trafikoa- ren zortasunetik libratzeko. Zehatzago, Kale Berriaren eta Eliz Kalearen artean kale berri bat eraikitzea planteatzen da, Larraulgo bidea lotuko duena.

**Aparkalekuak.** Bide perimetralaren inguruan, hainbat aparkaleku berri planteatzen dira: Berria kalean, 37 plaza; Ibarrazpi pasealekuan, 39; kiroldegia- ren atzealdean, 16; zerrategiaren inguruan, 55; Iturri- riondoren atzealdean, 13; Maravillas eremuan, 72.

**Bidegorria.** Bidegorria eraikitzea planteatzen da, Asteasu- ren erdigunetik abiatu eta, industri- aldearen atzealdetik barrera bailara zeharkatuz Zizurkileraino.

**Etxebizitzak.** Etxebizitzaren es-



Herrigunea oinezkoentzat jarri nahi du Udalak. I. GARCIA

kaintza udalerriko bertako biztanleek, aurreikuspen guztien arabera, egingo duten eskaria aintzat hartuz eginda dago. Aurreikusita dauden etxebizitzak asko babes ofizialekoak eta tasatuak izango dira.

**Ipupomamua.** Lamiategiko eremua udalerriz gaineko ekipamendu kultural handia izango duen eremua izango da.

**Igerileku irekiak.** Elizmendi auzoan kokatzea proposatzen da, Erretoretxearen diren sailetan, hain zuzen ere.

**Maravillas-eko area degradatua berreskuratzea.** Kale Berriaren eta Eliz Kalearen artean kale berri bat irekitzea, etxebizitzak berriak, aparkaleku ugari sotoetan eta lur gainean, arean dauden txabolak kentzea, Kale Nagusiko etxeen atzealdean dauden baratzeen aurrealdea arautzea eta Zapatarinea eraikinaren ordez eraikin berri bat egitea proposatzen dute udal ordezkariek.

**Zerrategiko area degradatua berreskuratzea.** Planteatzen da zerrategiko instalazioen lekuan etxebizitzak berriak eraikitzea, Errekabailarako errepi- dea eta Larraulgo errepi- dea lo-

tuko dituen kale bat irekitzea eta aparkaleku ugari sotoetan eta lur gainean.

**Elizmendi.** Besteak beste, jarduera hauek proposatzen dira: Idogarate baserriaren eta eskolen artean bide bat irekitzea; 37 aparkaleku berri egitea eskolen ondoan; etxebizitzak berriak Idogarate baserriaren ondoan (etxebizitzak berri asko babestua izango dira), lurpeko aparkalekuak; igerilekuak Errotetxan; lehendik ordenazioz kanpo zegoen Goiz eguzki etxea finkatzea; Zelaieta etxea eraistea eta berreraikitzea, lurpeko aparkalekuak, etxebizitzak berriak, eta lurgaineko 21 aparkaleku ingurutarako.

**Industri- gunea.** Ez da planteatzen industri- gunea berri- rik; udalerrian gaur egun dagoen industri- gunearen tamaina nahikoa da. Egungo industri- gunean dauden zenbait arazo konpontzea.

**Agroalde- a.** Agroaldeko instalazioei eustea planteatzen da, Asteasuko industri- gunea eta hirigunea banatzen dituen zona gisa.

**Landa eremua.** Baserriak ber- rritzea eta birgaitzea lehenetsi egingo dira; nekazaritza ustia- tegi berria eraikitzeko gutxi- neko partzela bi hektareakoa izango da eta ez da onartuko labore unitate minimoa baino txikiagoko partzelazioak. Uni- tate hori hektarea batekoa da Gipuzkoan.

IRURA ▶ GIZARTEA



Irurako dantzari- rik egindako emanaldiaren une bat. HITZA

## Herriko dantzarien emanaldia Torrelles-en

Bartzelonako herri honek gonbidatuta, bertako Gerezi Festan hartu dute parte

I. GARCIA

«Bidaia oso ona izan da. Oso ondo atera da dena». Horrela laburbildu du Marimi Ugalde Irurako alkateak, pasatu berri den asteburuan herriko dantza taldeak Torrelles de Llobregaten (Katalunia) igarotako asteburua. San Miguel jaie- tan herri katalaneko dantza taldearen bisita izan zuten Iru- ran. Orain, irurarrak izan dira gonbidatuak, Torrelles-eko Gerezi Festan parte hartzeko. Gainera, festa horien 25. edi- zioa betetzen zuten aurten.

Bederatzi eta hamalau urte arteko 22 dantzari, dantza ira-

kaslea, hiru txistulari, lau gu- raso eta alkatea joan ziren. La- runbatean Bartzelona bisita- tzeko aukera izan zuten eta igandean Torrelles-en eman zuten eguna. Eguerdian dan- tza tailerra egin zuten, herri batekoek beste dantza era- tsi zizkieten. Arratsaldean izan zen bi herrien dantza saioa, ikusle askoren aurrean. Ondoren, Irurako Udalak To- rrelles-eko Udalarekin eta Kultur Etxearekin opari truka- keta egin zuten. «Asteburu ederra pasatu genuen», dio Ugaldek, «eta seguru dantza- riek luze gogoratuko dutela esperientzia hau».

VILLABONA ▶ KIROLA

## Koadrilen futbol txapelketa martxan

Santiotako Koadrilen Arteko Areto Futbol Txapelketa martxan dago. Lehen faseko partidak jokatzen ari dira astelehenean, asteazkenean eta ostiralean, 18:30etik aurrera Errebote plazan, jende ugari bilduz. Lehenengo fasean bi talde daude, bakoitzean sei talderekin. Lehenengo lau taldeak sailkatuko dira. Ekainaren 27an ekingo diote bigarrenengo faseari zoztzi taldeek. Lehen eta bigarren sailkatuek finalerdiak jokatuko dituzte. Uztailearen 1 In jokatuko dira joane-koak eta uztailearen 13an etorri-koak. Finala Santio jaietan jokatuko da, uztailearen 30ean.

ALTZO ▶

## Nerea Herrarte ipuin kontalaria gaur udaltxean

Galtzaundi Euskara Elkarte- ak antolatuta, gaur arratsal- dean Nerea Herrarte ipuin- kontalaria saio bat eskaini- ko du. Haur eta helduak gon- bidatuta daude. Hitzordua 17:30ean izango da, udale- txeko ganbaran.

VILLABONA ▶

## Santiotako pilota txapelketetarako izen-ematea

2005eko Santiotako pala- frontenis eta eskuz binakako txapelketetarako izen-ema- tea bihar amaitzen da. Behar- Zana elkartearen eman behar da izena. Eskualdeko herrie- tako pilotari afizionatu guz- tiek eman dezakete izena.



**LIZARBI**

Kutxa, mahai, aulki etab.  
Altzariak • Zurgintza orokorra  
Tailakesuz eginak Zaharkinen berriztatzea

San Esteban auzoa  
Tel./Faxa: 943 650 063 • TOLOSA

## ALEGIA ▶ KIROLA

## Intxurrek festa giroan amaitu du denboraldia

Opariak banatu ziren urteko onenei eta ondoren afaria egin zuten elkarrekin plazan



Otaño, Renobales, Zubillaga, Garcia eta Fernandez sarituak. HITZA

## N. LATABURU

Alegiako Intxurre futbol taldeak emaitza «txukunekin» esan dio agur 2004/05 denboraldiari.

Maila guztietako taldeek bere lana gogoz burutu dute. Txikiak, infantilak, Gipuzkoako txapelketako final laurdenetara iritsi ziren, norgehiagoka hau irabazterik izan ez zutelarik. Jubenilak, berrik, erregulartasunez amaitu dute urtea, taula erdiko 10. postua eskuratuz. Lurraldeko mailakoak izan dira, apika, amaiera gogorrean pairatu dutenak. Izan ere, ez zuten mailaz igotzeko txar telik lortzerik izan.

Emaitza hauek aitzaki, iragan larunbatean urteroko denboraldi bukaerako afaria egin zuten kirolari guztiak, entrenatzaile eta direktiboak, herriko plazan. Bertan, jokalaria eta entrenatzaile onenari sariak banatu ziren. Hauek izan ziren sarituak: Ioxan Tolosa (jubenilen entrenatzailea), Xabat Renobales (jubenila), Gorka Zubillaga (infantila), Santos Irazustabarrena (lurraldeko mailako entrenatzailea), Gari Garcia (lurraldeko mailakoa) eta Haritz Fernandez (jubenila).

Dagoeneko datorren urtean dituzte begiak denek, entrenatzaile eta jokalaria gehienak mantenduko direlarik.

## ALEGIA ▶ KIROLA

## Renobales, Elgetako final-laurdenetan

Bihar jokatu du Elgetan 20:00etan hasita, bigarren norgehiagoka Argoten aurka

## N. LATABURU

Ugaitz Renobales gazte alegiarrak aurrera darral Elgetako Pilota Txapelketan. Bihar txapelketa honetako final-laurdenetako norgehiagokak jokatu dira. Bertan izango da Renobales, 20:00etan hasiko den txandako bigarren partiduan. Argote izango du

parez pare bertan. Garaipena lortuko balu finalerdietara igaroko delarik. Lehenengo neurketan berriz, Olaetxea eta Berasaluze ariko dira parez pare.

Renobales denboraldi bikaina burutzen ari da parte hartu duen lehiaketa guztietan eta gogotsu dabil ere txapelketa honetan.

## ALEGIA ▶ GIZARTEA



Haur dantzariak Alegian eskaini zuten azken emanaldian, iragan abenduko Eguberri egunean. O. ESKITSABEL

## Haur Dantzarien I. Topaketa antolatu du Dantzarien Biltzarrak

Etzi 17:30etik aurrera izango da desfilea, dantza emanaldia eta agurrarekin; guztira 200 hurrek hartuko dute parte

## NOELIA LATABURU

Etzi, larunbata, Haur Dantzarien I. Topaketa antolatu dute Alegian. Ekitaldia honek haur dantzarien artean ohiko taldeko dantzak bultzatzea eta suspertzea du xedea. Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrak bultzatutako ekimena da hau, Alegiko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Ekitaldiari 17:30ean emango zaio hasiera, Alegiako kaleetik zehar Gipuzkoako hainbat herritatik etorritako hurrek egingo duten desfilearekin. Arratsaldeko ekintza nagusia ondoren ailegatuko da, plazan izango den dantza emanaldia. alegia. Eguraldiak lagunduko ez balu eta euria eginez gero, jaialdia Alegiako frontoian garatuko da. Guztira, 200dik gora haur hartuko du parte, Gipuzkoako hainbat herritatik etorritako: Alegia, Beasain, Behobia, Irun, Donostia eta Usurbil, esaterako.

Antolatzaileen esanetan, euskal dantza garatu nahi du jaialdiak. «Gure herrian dantza ugari eta aberatsak ditugu, bai bakarka, bai taldeko dantzatu daitezkeenak, baina azken urteetan Eskolarteko Jaialdiak desagertu zirenetik, taldeko

dantzen garrantzia murriztu egin da bakarkako dantzen alde: aurreku, soinu zaharrak, zortzikoak dira orain nagusi». Honen aurrean eta arazo honi irteera bat topatu nahian, hurrek bakarkako dantzak eza gutu eta dantzatzeaz gain, taldeko dantzak ere ikas eta dantza ditzaten lortu nahi da, beraz, topaketa honekin.

## Agurra elkarrekin

Lau taldek eskainiko duten emanaldiaren ostean, elkarrekin dantzatzu amaituko dute Haur Dantzarien I. Topaketa. *Fandangoa, Arin arina, Txulalalai* eta *Zazpi lauziak* dantzatzuko dituzte.

## EGITARUA ▶

**17:30.** Desfilea herriko kaleetan zehar.  
**18:00etik aurrera.** Herriko plazan emanaldia izango da: 12 urte beherako mutilak *Agurra* eta *Jorrai dantza* eskainiko dute; 12 urte beherako neskek *Makil txiki* eta *Zinta dantza*; 12 urte gorako mutilek *Makil haundi* eta *Uztai txiki*; eta 12 urte gorako neskek *Erribera* eta *Boastetzea* dantzak eskainiko dituzte.  
**Agurra.** Denek batera *Fandango, Arin arin, Txulalalai* eta *Zazpi lauzi* dantzak eskainiko dituzte.

tolosaldeko eta leitzaldeko

hitza

Praktikak hilabetez HITZAN uztailan edo irailean

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioa lizentziatutako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali helbide hauetara:  
Araba etorbidea, 5 - atzea • 20400 TOLOSA  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
(ekainaren 20a baino lehen)

## IBARRA ▶ KIROLA



## Patagonia ezagutzeko aukera

I. Terradillos ▶ Aitor Arozenak Pirinioetan eta Alpeetan eginiko bi-dia azaldu zuen herenegun, eta atzo, Peru ezagutzeko aukera izan zen. Gaurkoan, bidaien inguruko asteraren baitan Patagoniari buruzko ikusentzunezkoa izango da Kultur Etxean 20:00etan. J.SAIZAR

## IBARRA ▶ GIZARTEA



## Merezitako omenaldia

I. Terradillos ▶ Mila Lopetegi eta Rosario Lizarribar, 30 urte daramate Uzturpen lanean, horregatik eta euren lana eskertuaz omenaldia egin diete. Bestalde, Uzturpeke eskerrak eman nahi dizkie Ikastolaren egunean lagundu dutenei. HITZA

## IBARRA ▶

## Diru laguntzak emango ditu Udalak Udako ikastaroetan

## ERREDAKZIOA

Unibertsitate mailako udako ikastaroetarako diru laguntzak emango ditu Ibarra Udalak, hau da, Udako Euskal Unibertsitateak nahiz Euskal Herriko Unibertsitateak udan antolatzen dituzten euskarazko ikastaroak egiteagatik laguntzak jaso ahaliko dira. Diru laguntza hauek eskaria egiteko euskaraz ikasleek dituzten baldintza berberak bete behar dira eta irizpide berei jarraiki emango dira; Ibarro erroldan izena emanda egon beharko da, eskaera orria bete eta eskaerarekin batera ordainketa agiria eta ikastaroa egin dela ziurtatzen duen agiria ekarri beharko da. Ikastaroetarako laguntzak jasotzeko eskaerak egiteko epea irailaren 30ean amaituko da.

## LIZARTZA ▶ GIZARTEA

## 'Naparra' gogoan, 25. urteurrenean

1980ko ekainaren 11tik, «BVEk bahitu zuenetik», ez dago haren berririk; igandean egingo diote omenaldia 12:00etan



Atzo goizean Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituriko prentsurrekoa; eskuinetik hasita, Eneko Etxeberria, Zelestina Alvarez, Jon Enparantza eta Iñigo Iruin senide eta lagunekin. I.TERRADILLOS

## IÑIGO TERRADILLOS

Larunbatean 25 urte beteko dira Jose Miguel Etxeberria Alvarez *Naparra* «Batallon Vasco Español-ek bahitu zuenetik», eta hura gogoan igandean omenaldia egingo diote Lizartzan bere familia etxean. Atzo, Donostian Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deitututa prentsurrekoa izan zen haren inguruko desagerketaren berri eman eta omenaldiari buruzko nondik norakoak emateko. Iñigo Iruin desagertuaren dossieraren jarraipena egiten aritu

den abokatua, Zelestina Alvarez Jose Miguelen ama, Eneko Etxeberria anaia, Jon Enparantza eta senide eta lagunak izan ziren prentsurrekoan.

Amnistiaren Aldeko Mugimenduen izenean Jon Enparantzak hitz egin zuen. «Batallon Vasco Español-ek bere gain hartu zuen *Naparraren* desagertzea bere unean, baina ordutik ez da berririk», azaldu zuen. «25 urte betetzen direla gogoratu eta memoria berri nahi dugu», «gure ustetan *Naparra* helburu zuen gerra ziklaren ekintza izan zen, zeha-

tzago izateko BVE-rena; gerra zikin hau Euskal Herriari zapalkuntza eta sufrimendua eragiteko eta askatasun nahia itozteko sortua izan zen». Hori dela-eta Espainiako Estatuaren erantzukizuna berriro salatzen dutela gehitu zuen.

Bestalde, Jose Miguel Etxeberriaren gurasoek atxilotze ilegala eta hilketa delituengatik 1991an kereila jarri zutela azaldu zuen Iñigo Iruinek. Auzitegi Nazionalako bigarren epaitegian ireki zen prozedura eta 2004ko urrian artxibatu baren ere, familiak ez duela za-

## 'Naparra'-ren bizitza

1958ean jaio zen Iruñean. Gaztea zela Iruñea eta Alegian egon zen ikasketak eginen. ETAn ibilia eta Komando Autonomoetara pasatu zen ondoren. 1978an Ipar Euskal Herria ihes egin beharra izan zuen. 1980ko ekainaren 11n desagertu zen. Egun horretan ikusi zuten azkeneko, autoz Baionatik Donibanera zihoala. Astebete geroago bere autoa agertu zen Ziburun, baina bere arrastorik ez, eta ordutik ez dago bere berririk.

lantzarik eta erabat ziur dagoela Jose Miguel Etxeberriaren desagertzea eta heriotza estatu terrorismoaren ekintza dela adierazi zuen, BVEko Perret anaien taldeak burutua hain zuten. Lau arrazoi eman zituen ondorio hartara iristeko: «Urte haietan estatu terrorismoa zegoela ezin uka daitezkeen gertaerak, ekintza egiterakoan jarduteko modua, desagertzearen unean egin ziren errei-bindikazioak BVEren eskutik eta ikerketak emandako emaitzak».

Eneko Etxeberriak hitz egin zuen ondoren, eta «9.131 egun igaro dira desagertu zenetik eta nahikoa da», esan zuen. Era berean, familiak *Naparraren* inguruko berririk duenari bearaikin harremanetan jartzeko eskaria egin zuen. Bestalde, igandean egingo dute 12:00etan omenaldia Lizartzan Igarola-Bekoa baserrian.

## TELEFONOAK ▶

## Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Iruia. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leiza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
  - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amarozko dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

## Garrarioak.

- ▶ Renfe Tolosa: 652889
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzarar autobus.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leizta): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

BAI EUSKARARI ▶

# Ziurtagirien jarraipena egiten hasia da Kontseiluko teknikoa

Leitzan eta Areson, guztira 56 eragilerekin egonen da hurrengo egun hauetan

JAIONE ASTIBIA

Kontseilua hasia da dagoeneko iaz gure eskualdean hainbat eta hainbat eragile, enpresa tiki, denda, elkarte eta bestek «euskararen normalizazioaren aldeko jardunean» eskuratu zituzten ziurtagirien jarraipena egiten. Guztira, 78 bisita egin behar ditu. Dagoeneko Goizuetako eta Aranokoak eginak ditu, eta orain Leitzan dabil.

«Bai Euskarari Ziurtagiriak» 56 dira Leitzan eta Areson, hiru motatakoak jakina denez. Une hartan bakoitzak euskararekiko zuen erabilpen mailaren arabera eskuratutakoak. Eta



Jubilatu Elkartekoekin hitzordua egin zuen Oihana Lujanbiok. J. A.

euskararen normalizazioaren alde egoki iruditutako konpromisoak hartu zituzten guztiak. Orain, «orduan hartutako haiek betetzen moldatu diren edo ez, zailtasunik izan bada, zertan, laguntza behar izan duten, nola egin duten lana», eta beste hainbat arlo aztertuko dituzte eragileek eta teknikariak elkarrekin. Eta konpromiso berriak hartu ere bai, «hala nahi izanez gero», ziotenez.

Hurrengo hilaren aurreneko egunean, uztailearen 1ean eginen dute, ziurtagiri berrien banaketa ekitaldia, Leitzako udaletxeko batzar aretoan, iluntzean, 20:30ean.

HEZKUNTZA ▶

## UEUko bertako ikasleentzat diru laguntza izanen da

Leitzaldeko Euskara Zerbitzuak gastuen %60-80 bitartean lagunduko ditu

J. ASTIBIA

Goizueta eta Aranorekin batera, Areso eta Leizta ere kide diren Euskara Mankomunitateak, Euskara Zerbitzuaren bidez, Udako Euskal Unibertsitatean, UEU-n izena ematen duten herri hauetako ikasleei diru laguntza ematen die.

Laguntza honetaz baliatu nahi dutenek, noski, eskaera egin behar dute, hilaren 30a baino lehen, «Euskara Zerbitzuan bertan, 948 510 814ra deituz edota leitzaldea@euskalnet.net helbidearen bidez», handik bertatik jakinarazi dutenez, horretarako «2005ean UEUko matrikula agria eta horren ordain agria», aurkeztu behar omen direlarik, «errolatze ziurtagiriarekin batera».

Horrela, matrikula egin dutenen kasuan, %60eko diru laguntza jasoko dute; matrikulaz gain, egoitza ere hartu dutenek, %80ekoa. Orotara, 600 euroko diru-partida omen dago horretarako bideratuta. Eskaerak kopuru hori gaintutako balute, «proporzionalki» banatuko omen lukete; agortuko ez balitz, ordea, «gainerako kanttateak UEU» emanen zaiola, baieztatu dute.

GLORIA IRURTIA ▶ JUBILATUEN ELKARTEKO IDAZKARIA

## «Garrantzitsua da, arlo guztietan euskaraz ari daitekeela erakusteko»

Duela urte bete euskararen normalizazioaren bidean, kide den elkarteak Guk zerbitzua euskaraz ziurtagiria eskuratu zuen. Atzo, hartutako konpromiso haiekin nola moldatu diren aztertu eta etorkizunerako berri batzuk hartu zituzten.

**Zer konpromiso hartu zenituzten?**

Elkarteko estatutuak, langilearen kontratua eta inbentarioa euskaratzea izan ziren hartutakoak. Eta gehienak bete ditugu, inbentarioarena falta zaigu, baina hori neronek egingen dut.

**Lana egin duzue, beraz.**

Bai, pixka bat; baina estatutuak eta euskaratzerakoan, euskara zerbitzuak eskaintzen duen zerbitzuaz baliatu gara esan behar da. Horrela, ongi.

**Ongi moldatu zarete?**

Nik uste baietz. Bestelako funtzionamenduan, beti bezalatsu jarraitu dugu eta ez digu halako lanik eman ere; bilerak bietara egiten dira, aktak duela 10 urtez gerotik ere, halaxe hartzen ditugu, iragarkiak ere elebiz egiten ditugu... Kontutan hartuta, badirela erdaldun huts diren bazkideak ere, horrela ari gara. Nik ahal dudan arte jarraituko dut nire egitekoak betetzen lanean.



J. ASTIBIA

**Bideari jarraitzeko asmotan zarete?**

Bai, bai. Oso garrantzitsua da pausoak emanez, arlo guztietan euskaraz aritzea, eta horrela ere egin daitekeela erakusteko. Duela urte batzuekin parekatuta, kalean euskara asko aditzen da eta pozgarria da. Orain, adinduetan, erdera franko erabiltzen da.

**Konpromiso berriak hartu ditu elkarteak, beraz.**

Bai. Estatutuari, euskararen erabilera araudia erantsi, atariko errotulua euskaraz jarri, izena ere bai, kartilak eta titularrak ere euskaratu eta gure agrietan ziurtagiriaren logoa erabiltzen hasiko gara. ◀

OIHANA LUJANBIO ▶ KONTSEILUKO LANGILEA

## «Herritar guztiok pixka bat eginez, egunero, denon esku dago»

Iaz eskuratutako Bai Euskarari ziurtagirien jarraipena egiten ari da egun hauetan Leitzan, Goizueta eta Aranokoak egin ondoren. Aresora joanen da hurrena. Berrikuspen kanpaina nola doan jakiteko asmoz, berarekin egon gara.

**Noiz hasi zara berrikuspenarekin?**

Lehenengo Goizueta eta Aranoko 20 ziurtagiriak egin genituen eta lehengo ostegunean hasi nintzen hemen: 15 bat eragilerekin egon naiz. Orotara 56 dira bi herrietan.

**Oraingo ikusitakoarekin, zer balantze egiten duzu?**

Batzuk oso serio hartu dutela ikusi dut, zinetan aritu direla eta lehengo urtean hartutako konpromiso gehienak bete egin dituztela; gainera, konpromiso gehien hartutakoak bete dituzte gehien. Beste batzuk, berriz, ez hainbeste. Baina, nik uste, aurreneko urtea izaki, dinamika pixka bat hartu arterainokoa izanen dela hori.

**Non ikusi duzu zailtasunak daudela?**

Kanpoko hornitzaileekin, aholkulariekin eta Iruñeko Administrazioarekin. Gainera, iruditzen zaie maila horietan ezin daitekeela deus ere egin. Eta



J. ASTIBIA

hori, euskaraz ere egin dezaten guztiok eskatuz aldatu dezakegu.

**Jarraituko diote bideari?**

Bai, ia-ia denek, eta konpromiso berriak hartuz gainera. Aurten batez ere, berena den ziurtagiriaren logoa erabiltzeko eskatzen ari gara, oinezkoak egiten ari den ahalegin horren berri jakin dezan, batez ere; hornitzaileekin izaten diren harremanak, fakturazioak eta beste, ere euskaraz izatea, banketxeetako agiriekin gauza bera...

**Tikiak eta eginbeharrekoak.** Denon artean pixka bat eginez, egunerokoa: herritar guztion esku dago. ◀

### ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Inketa.** Zer iruditzen zaizu lantokietan erretzea debekatzea? Eta, bikote homosexualak ezkondu edota adoptatzeko eskubidea izatea?



Asko erretzen da lantokietan.



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko ekainaren 9a, osteguna ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



(Zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

**943 30 43 46**

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alkiza.** Idoia Barandiaran ipuin kontalariaren saioa liburutegian 18:00etan.  
**Aitzo.** Nerea Herrarte ipuin kontalaria udaletxeko ganbaran 17:30ean.  
**Tolosa.** Zinezale taldearen bilera Kultur Etxean 20:00etan, Udalari aurkeztu beharreko proposamenak zehazteko.  
**Tolosa.** Oargi mendi elkarteak bazkideen ez ohiko asanblada egingo du 20:00etan egoitzan bertan. Garrantzi handiko gaia denez, ahalik eta jende gehiena joatea komeni da..  
**Tolosa.** Euskarazko webguneak laguntzeko deialdia atera du Udal Euskara Zerbitzuak. Epea: ekainak 30. Informazioa: 943 65 44 66.  
**Tolosa.** Ekinbide Etxeak (CIT), Titirijai barruan, txoxngilo antzerkia haurrentzat idazlan lehiaketa antolatu du. Irailaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira CITen (Emeterio Arrese 2). 4.000 euroko saria dago eta obra eszenaratu egingo da.  
**Tolosa.** XVII. San Joan Areto Futbol Txapelketa antolatu du Arsenal kirol elkarteak ekainaren 17tik 26ra 1995-96 eta 1993-94 urteetan jaiotako neska-mutilentzat. Izen-ematea: Shanti Kirolak (943 65 34 24).  
**Zizurkil.** Umorezko bakarriketa lehiaketa antolatu du Udalak. Euskaraz, orijinalak eta 500-700 hitzekoak. Sariak: 500 euro lehenak, 300 euro bigarrenak eta 150 euro herriko lehenak. Irailaren 15 arte Aurrerako bulegoetan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Leitza. Plaza, M. Elbarren 36. 112.  
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea 20. 943 67 60 13.

**IRRATIA**

**Txolarre (FM 107)**  
11:00-14:00. Eguraldia; Askapenako Mikel Korta; Ibarroa Euskara Zerbitzuak; Euskadiko Halterofilia Txapelketa; Eberateko Estanis Etaburu; Peiremans+ taldeko Imanol Ubeda...  
19:00. Errepublikena.  
21:00. Irulegi irratiako Zaharrak berri.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Laskorain Ikastolako jokuek jende asko bildu zuten Usabalen. HITZA



Potxin eta Patxin Laskoraingo haurrekin dantzan igandean. HITZA

# Ikasturte amaiera festak

**TOLOSA-VILLABONA ▶** Laskorain eta Jesusen Bihotza ikastolek bere festa egin dute: jolasak, ikasleen emanaldiak, pailazoak, otorduak...



Jesusen Bihotza ikastolako ikasleek bere dantza emanaldia eskaini zuten larunbatean. HITZA

**ERREDAKZIOA**

Ikasturte amaierako jaiak ari dira burutzen garai honetan eskoletan eta asteburuan Tolosako Laskorain Ikastolako eta Villabonako Jesusen Bihotza ikastolak egin zituzten. Laskorainen izan osoko festa izan zuten igandean, eguraldi ederrarekin. Bizikleta ibilaldian ikasle eta guraso ugari hartu zuten parte. Goizean herri kirolak, ginkama, altxorren bila, hamaietakoak eta ikasleen emanaldiak izan ziren: dantzak, abesbatza, berbakari goxoan 500 lagun inguru elkartu ziren. Ondoren txikian jolasak, esaera zaharren lehiaketa, Potxin eta Patxin pailazoak, buruz buruko pilota finala pantaila handian —porra eta guzti— eta Karraxi taldearekin dantzaldia izan ziren berandu arte. Jesusen Bihotzan futbola, mus, trikitulariak, krosa, ikasleen emanaldia, eskulanean erakusketa, pailazoak, abesbatza eta afari-merienda izan zuten larunbatean.

**AGURRAK ▶**




**URTE ASKOAN**  
Ioritz Perea Beloki (Villabona). Zorionak zure lehenengo hilaletan. Muxu handi bat Tamararen partetik.




**URTE ASKOAN**  
Irene Arana (Ibarra). Gaur 8 urte. Zorionak gurasoen eta Amaiaeren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Nerea Ormaetxea Goikoetxea (Alegia). Gaur 3 urte. Zorionak etxekoan partetik.



**URTE ASKOAN**  
Egoi Irazustabarrena Garmendia (Alegia). Gaur urtebete. Muxu handi bat denon partetik.



**URTE ASKOAN**  
Apa bizkobito, zorionak!!! Kontatuko al ditugu balakoa!!! Boliltosen partez.

**HITZA,**  
zorian agurren tarfea  
HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 beheko TOLOSA Udaletxeko bulegoa LEITZA  
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!